

AGINDUA, INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKAKO SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN BAITA ARALAR (ES2120011) KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMU (KBE) IZENDATZEKO DEKRETU-PROIEKTUARI ALDEZ AURREKO ONARPENA EMATEA

2010eko irailaren 6ko Aginduaren bitartez, Atlantikoko eskualde biogeografikoko kontserbazio bereziko eremuak (KBE) eta Atlantikoko eta Mediterraneoko eskualde biogeografikoetako kontserbazio bereziko eremuak (KBE) izendatzeko Dekretua onartzeko espedienteari hasiera ematea erabaki zen. Eremu horien artean Aralarko ES2120011 BGL zegoen.

Prozedura hasi eta beharrezko azterlanak egin ondoren, ondorioztatu da eremu horretan, gutxienez, Batasunaren intereseko habitat naturalen 18 mota daudela; horietako bostek lehentasunezko izaera dute. Halaber, eremu horretan, gutxienez, 43/92/EEE Zuzentarauaren II. eranskinean biltzen diren bi flora-espezie daude, II eta IV. eranskinetan biltzen diren 13 fauna-espezieak, II. eranskinean baino ez diren biltzen sei espezie, eta IV. eranskineko 13 espezie. Nabarmentzekoa da, 2009/147/EE Zuzentarauaren I. eranskinean biltzen diren 19 hegazti-espezieak daudela, gutxienez. Aralarrek duen kasuistika berezi hori dela-eta, komeni da mendialde horretarako dekretu-proiektu bat berariaz lantzea.

Baina eremu horrek Naturagune Babestuen tipologia bikoitza biltzen du, Parke Naturala eta Natura 2000 Sareko kontserbazio bereziko eremua baita. Beraz, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginaren (hemendik aurrera, NKLTB) 18. artikuluari jarraiki, eremu hori antolatzeko mekanismoak koordinatu egin behar dira eremuaren plangintza integratuko duen dokumentu bakar batean biltzeko; horrela, kategoria bakoitzean aplikatu daitezkeen araubide desberdinek osotasun koherente bat osatuko dute.

Parke Naturalen kasuan, bi tipologiak arautzen dituen dokumentu bakarraren legeaurreikuspena ezin da gauzatu, legeak berak ezartzen baitu tipologia horiek Natura Baliabideak Antolatze Plan (NBAP) batek (NKLTBaren 20. artikulua) eta EKPZ batek (NKLTBaren 27. artikulua) arautu behar dituztela. Hala ere, bi baliabide horiek Naturagune Babestuaren (NB) bi tipologiaren premiak betetzeko baliagarriak izan daitezke, nahiz eta helburu eta eduki desberdinak dituzten.

Gainera, onartzean, kontuan hartu behar da Eusko Jaurlaritzak eta foru-organismoek dituzten eskumen konkurrenteak koordinazio-ahalegin berezia dakartela. Izan ere, NBaren bi tipologiaren deklarazioa Eusko Jaurlaritzari dagokio edonola ere (NKLTBaren 19.1 artikulua). Parke Naturalei dagokienez, NBAPa bideratzea eta onartzea Eusko Jaurlaritzaren eskumena da (NKLTBaren 7.a artikulua); EKPZrako, aldiz, prozedura bifasikoa betetzen da. Hau da, lehenik, foru-organismoek bideratzen dute eta organo horiek onartzen dituzte Parke Naturalaren kudeaketari dagozkion jarraibideak; eta bigarrenik, Eusko Jaurlaritzak bideratzen du, araudiari dagokionez (NKLTBaren 29.e artikulua). Bestalde, KBEei dagokienez, helburuak eta araudiak onartzea Eusko Jaurlaritzaren eskumena da (NKLTBaren lehen paragrafoko 22.5 artikulua) eta neurriak foru-organismoek dagozkie (NKLTBaren bigarren paragrafoko 22.5 artikulua). Nolanahi ere, baliabide desberdin horiek guztiak EHAAr argitaratu behar izaten dira beti.



Nahi izanez gero, J0D0Z-T0HEF-PWF9 bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T0HEF-PWF9 en la sede electronica <http://euskadi.eus/localizador>

Gaur egun, koordinazio hori ez da posible izango. Izan ere, beste eremu batzuen egokitzapena atzeratzea ekarri duen NBAP batzuen tramitazio luzeak sortutako eragozpenez gain, behin betiko onartzeko zain dagoen EKPZ dokumentua EAEko Natura Kontserbatzeko Legeak ekarritako arau-aldaketaren aurretik bideratu zen, eta ez ditu betetzen NKLTBaren 18. artikulua aipatzen duen dokumentu bakarraren izaeraren parametroak. Artikulu horren arabera, dokumentu horrek honako hau jaso beharko luke: batetik, Aralar Natura 2000 Sareko eremua kudeatzeko jarraibideak eta neurriak, 22.5 artikuluekin bat; eta, bestetik, 27. artikuluari dagokion Aralar Parke Naturalaren Erabiltzeko eta Kudeatzeko Plan Zuzentzailea. Dekretuaren eduki eta onartze-prozedurari dagokienez, adierazi beharra dago prozedura hasi ondoren martxoaren 11ko 1/2010 Legeak eta urriaren 10eko 2/2013 Legeak Natura 2000 Sareari dagozkion lege-aldaketa batzuk eragin dituztela Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legean; horren guztiaren ondorioz, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuak onartzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina sortu da; horrela, behar bezala betetzen dira bertan lege horiek.

Horregatik, alde aurreko onespena jasotzen duen Dekretuaren helburua Aralar Natura 2000 Sareko kontserbazio bereziko eremu izendatzea eta Habitat Zuzentarauaren 6. artikulua horrelako KBEetarako eskatzen dituen kontserbazio-neurriak onartzea baino ez da; beraz, 18. artikulua ezarritakoa betetze aldera, dokumentuak egokitzea geroko utzi da, azken xedapenetan lehenean jasotakoarekin bat.

Dekretuak zati artikulatu labur bat eta hiru eranskin ditu. Lehen bi eranskinak Eusko Jaurlaritzak izendapena egiteko eskumeneko alderdiak jasotzen dituzte, NKLTBaren 22. artikuluekin bat, eta honako hau biltzen dute: lekuaren eta bere mugaketaren kartografia, izendapena arrazoitzen duten Batasunaren intereseko habitat motak eta animalia- eta landare-espezieak, horien kontserbazio-egoerari buruzko balorazio bat, lekuaren kontserbazio-helburuak eta jarraipen-programa bat. Hirugarrenak, aldiz, foru-aldundiaren eskumeneko alderdia jasotzen du, hau da, foru-organoak landu eta onartu beharreko KBEaren kudeaketa-neurriak; horretarako, foru-organoak orain alde aurretik onartzen den dekretu-proiektuak ezartzen dituen helburuak hartuko ditu kontuan.

Dokumentu biak elkarrekin argitaratu beharko dira EHAAn. Horregatik, administrazio bien arteko lankidetzaz bidezko garatu behar dira, emaitzak helbururako koherenteak eta eraginkorrak izateko, eta, aldi berean, herri partaidetza behar bezalakoa izatea ahalbidetzeko.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legea betetze aldera, dagoeneko dekretu-proiektu egituratu bat landu denez, eta 2010eko irailaren 6ko Aginduko planteamenduekin bat,

EBAZTEN DUT:

Lehena.- Dekretu-proiektuari alde aurreko onarpena ematea. Horrek "Aralar" (ES2120011) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatu eta eremu horri dagozkion kontserbatzeko neurriak onartzen ditu.

Bigarrena.- Onartzeko prozedurarekin jarraitzea, Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE) izendatzeko Dekretua onartzeko espedienteari hasiera ematea erabakitzeko den 2010eko

irailaren 6ko Aginduak aurreikusitako izapideei jarraiki. Hala ere, NKLTBan jasotako araudi-aldaketek ekarritakora egokitu beharko dira.

Gainera, aipatu beharra dago hasiera emateko Agindu horrek aurreikusten zuela dekretu-proiektuak genero eraginaren ebaluazioa bete beharra, baina Emakundek aurreko agintaldian bideratu eta onartutako dekretuen inguruan emandako txostenak ezarri zuen horrelakoek ez zutela genero eraginaren ebaluazioa bete behar; beraz, izapide hori ez da beteko.

Hirugarrena.- Agindu hau Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, espediente osoaren kopiarekin batera; horrela, proiektu honetan ezarritako kontserbazio-helburuen baitan, NKLTBaren 22.5 artikulua bigarren paragrafoak aipatzen dituen kudeaketa-jarraibideak lantzeari ekin diezaion.

Laugarrena.- Bi administrazioen arteko lankidetzak sustatzen jarraitu beharko da, dokumentuen behar bezalako ezarpena egiteko; horrela, posible bada, dokumentu osoaren baterako informazio publikoko izapidea egingo da, hau da, Eusko Jaurlaritzaren zatia eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren zatia batera.

Vitoria-Gasteizen,

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKAKO SAILBURUA

Izpta: ANA OREGI BASTARRIKA.